

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresek ezinbestekoa dute elkarteak eratzea beste enpresa eta erakundeekin batera bere proiektua hedatzeko. Gure enpresa ez da gutxiago izango, beraz, gure proiektua gauzatzeko, aliantzak beharko ditugu. Hori dela eta, atal hau erabiliko dugu gure funtsezko elkarteak zehazteko.

Gure enpresak *Barbie* marka ospetsuari kritika bat egiten dionez eta gure panpinak enpresa horren produktuan oinarrituta daudenez, liteekena da *Barbierekin* arazo legalak edukitzea. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugun elkarte bat patenteetan espezializatua den abokatu bat edukitzea izango da. Horretarako, *Ungria* enpresarekin eratuko dugu aliantza, batez ere, bai AEBn eta bai Espainian eskaintzen dituztelako zerbitzuak.

Eratu beharko dugun hurrengo funtsezko elkarteak, gure enpresaren ekoizpen prozesuak egiteko ezinbestekoak diren lehengaien hornitzaileak dira. Gure panpinak, nagusiki, plastiko birziklatuaz osatuta egongo direnez, material hau hornituko digun kalitatezko eta konfiantzazko elkarte bat beharko dugu. Horregatik, gure plastiko hornitzailea *Plasnor* izatea erabaki dugu. Arrazoi nagusiak, tokiko enpresa bat izanda gure eskualdeko jarduera ekonomikoak indartuko ditugula eta hornitzaile honekin harremana izatea errazagoa izango dela dira.

Materialekin jarraituz, panpinen arropa osatuko duen oihala beharko dugu, horregatik, gure hurrengo funtsezko elkarteak, oihalak ekoizten dituen enpresa bat izango da. Gure enpresaren beharrak oihalaren kasuan, Estatu Batuetan eta Espainian disponibilitatea duen enpresa bat izan beharko da eta aldi berean zuntz organikoak edota birziklatuak ekoizten dituenak. Ezaugarri horiek betetzen dituen enpresa, *Nextil* da zuzenez zuzen. Bestalde, Gure panpinak kutxetan salduko ditugu, panpinak saltzerakoan erabiltzen diren estilokoak. Kutxa horiek fabrikatuko dizkigun enpresa, *Smurfit Westrock* da, zuzenez zuzen. Eta azkenik, gure panpinak fabrikatzeko ezinbestekoa den makineriaren hornitzailea *ARBURG* enpresa izango da.

Bestalde, gure panpinak eskuragarri egongo diren dendetara garraiatu ahal izateko, funtsezkoa da garraio enpresa batekin elkarte bat eratzea. Gure enpresaren beharrekin bat egiten duen garraio enpresa *DHL* da, Estatu Batuetan zein Espainian zehar gure panpinak banatu ahalko ditugulako.

Horrez gain, gure enpresa aurrera eramateko beharko dugun mailegua hornituko digun bankua ere hautatu dugu: *Banco Santander*. Banku hau aukeratu dugu eta ez beste bat, nagusiki, gure enpresak presentzia edukiko duen herrialdeetan eskuragarri dagoelako, eta horrez gain, enpresa-kontuak, nazioarteko kobranta/ordainketen soluzioak eta kanpo-merkataritzarako finantzaketa eskaintzen dituelako.

Jarraitzeko, gure panpinak eskuragarri egongo diren dendetara garraiatu ahal izateko, funtsezkoa da garraio enpresa batekin elkarte bat eratzea. Gure enpresaren beharrekin bat egiten duen garraio enpresa *DHL* da, Estatu Batuetan zein Espainian zehar gure panpinak banatu ahalko ditugulako.

Gure panpinen saltzaileekin jarraituz, gure produktua ikusgai egon dadin, pentsatu dugu Espainiako eta Estatu Batuetako dendarik ezagunenetan egon beharko direla salgai bezeroengana iristea errazagoa izateko. Ameriketako Estatu Batuetan, dendarik ezagunenak *Walmart*, *Toys R Us* eta *Toy planet* dira; Espainian, berriz, *Afede*, *Toy planet*, *Toys R Us* eta *Jugettos* dira.

Gure nabe industrialetan Wifi sarea ezartzea erabaki dugu, gure lana modu eraginkorrean eta arazorik gabe funtzionatzeko. Horretarako, *Density Networks* enpresarekin harremanetan jartzea erabaki dugu segurtasun altuko industriako Wifi sarea, horrela gure makinak modu egonkor eta etengabea konektatuta edukiko ditugu.

Azkenik, publizitate-enpresa bat beharko dugu, gure produktua merkatura eta gure xede-publikoarengana zabaltzeko eta ezagutaraziko duena. Hori dela eta, *Canspan* marketing eta publizitate enpresarekin lan egingo dugu. Kanaletan aipatu dugunez, telebistan, sare sozialetan eta influenzerrekin publizitate kanpainak egingo ditugu, eta enpresa honek jarduera guzti hauek gauzatzeko aukera emango digu.

